

ZUZENDARITZAKO LANGILEEN IBILBIDEA

2019-2023 AGINTALDIA

Udal-kudeaketa (Politika) sustatuz: udaletako berrikuntza- eta hobekuntza-proiektuak, 2019-2023 agintaldirako

2019-2023 agintaldiaren hasiera, zalantzarik gabe, unerik egokiena da datozen lau urteetan bultzatu nahi diren kudeaketa-politika eta -proiektuen identifikazio-prozesua aurrera eramateko. Agintaldiko Planak edo Gobernu Planak proiektu horiek islatu behar ditu. Eta hori behar bezala gauzatzeko, ezinbestekoa da ildo beretik joatea Politika eta Kudeaketa, hau da, Udal Administrazioko gobernu-taldea eta teknikari-zuzendariak.



Programa honek, zeinak bi aurrekari dituen, 2015-2019 agintaldian EUDELeK eta IVAPek bultzatu zituztenak Zuzendaritzako langile publikoen ibilbidearen esparruan, helburu hauek ditu:

- ✓ Prestakuntza eta Ikaskuntzako esparru komun bat sortzea, bai Udaletako gobernu-taldearen ordezkariarentzat eta bai teknikari-zuzendarientzat.
- ✓ Modu horretan, eremu kognitibo bat eta hizkuntza bat bultzatzea, bi aktoreek partekatuko dutena (gobernu-taldea eta teknikari-zuzendariak).
- ✓ Esparru kontzeptual komun bat garatzea, eta gaur egun Euskadiko tokiko gobernu guztien agendan dauden gaien inguruko jardunbide egokiak zein diren azaltzea.
- ✓ 2019-2023 aldiari dagokion Agintaldi Plana edo Gobernu Plana (edo, halakorik ezean, Ardatz Estrategikoak) lantzea onartzea, oraindik halakorik onartu gabe duten udaletan.
- ✓ Politika eta Kudeaketaren arteko bat-etortzea areagotzea, baita komunikazio eraginkorra eta lankidetzaren ere, dagokion Udalean.

- ✓ Aktore desberdinak politika- eta zuzendaritza-gaitasunez hornitzea, lan-ingurune profesionalago eta sortzaileago bat garatzeko.
- ✓ Programan tratatutako eremu edo gairen baten inguruko Berrikuntza edo Hobekuntza Proiektu bat elkarrekin egitea sustatzea (gobernu-taldea eta teknikari-zuzendariak).

Adierazitako xede edo helburuak kontuan izanik, Programa honetan parte hartzeko eskabidea **Udalek formalizatuko dute, eta udalerrri bakoitzeko, inskribatuko da pertsona bat, gutxienez, erantzukizun politikoa duena, eta bi pertsona (gutxienez) edo gehiago, teknikari-zuzendariaren erantzukizuna edo teknikariaren erantzukizuna dutenak.** Ez da onartuko banan-banako inskripziorik. Biztanle askoko udalerrietan, onartuko da aurkeztea zinegotzi baten edo zuzendaritza-organo baten titularraren inskripzio-eskabidea alde batetik, eta teknikari-zuzendariena edo teknikariena bestetik. Salbuespenez, plazak hutsik egonez gero, Programan inskribatu ahal izango da arlo desberdinetako bi eskabide edo gehiago aurkezten dituen Udal bat. Bakarra onartzen bada, Udalak berak zehaztuko du zein arlok izango duen lehentasuna.

PROGRAMA

1. SAIOA: 2019ko urriaren 18a

INAUGURAZIOKO HITZALDI-DEBATEA: "Política y Gestión Municipal"

Manuel Zafra Víctor, *Granadako Unibertsitateko Zientzia Politikoetako irakaslea*

Programaren aurkezpena

Koordinazio-taldea

2. SAIOA: 2019ko urriaren 25a

"Organización y personas en los Ayuntamientos"

María Dapena Gómez, *Vigoko Udaleko Giza baliabide eta Prestakuntza arloko arduraduna*

3. SAIOA: 2019ko azaroaren 15a

"Poniendo en marcha el trabajo en equipo"

BIKONSULTING

4. SAIOA: 2019ko azaroaren 22a

"Gobernanza Municipal: Integridad, Transparencia, Participación Ciudadana y Rendición de Cuentas"

Rafael Jimenez Asensio, *Administrazio publikoetako aholkularia*

5. SAIOA: 2019ko azaroaren 29a

"Innovación y simplificación en los ayuntamientos"

Fermín Cerezo Peco, *Berrikuntzaren eta Ezagutzaren Kudeaketaren Zerbitzuko burua. Valentziako Udala*

"Transformación digital en los ayuntamientos"

Carme Noguer Portero, *Antolamenduaren, Pertsonen eta Administrazio Elektronikoaren koordinatzailea. Manlleu-ko Udala*

6. SAIOA: 2019ko abenduaren 12a

"Reformas recientes de marcos normativos y su impacto sobre las Administraciones locales: Contratación Pública y Protección de Datos Personales"

Martin M^ª Razquin Lizárraga, *Nafarroako Unibertsitateko katedraduna*

7. SAIOA: 2020ko urtarrilaren 10a

"Financiación y Presupuestos en el ámbito municipal"

Izaskun Sarasola González, *Ortuellako Udaleko Kontu-hartzailea*

Ainhoa Molinos Zubiaurre, *Tolosako Udaleko kontu-hartzailea*

8. SAIOA: 2020ko urtarrilaren 24a

"Comunicación/negociación"

Joan Plans Esperabé, *prestatzailea*

9. SAIOA: 2020ko urtarrilaren 31

Proiektuen aurkezpena

TOKIA eta ORDUTEGIA

Lekua: Bilbao. EUDEL. Calle Ercilla, 13

Ordutegia: 09:00-14:00

HARTZAILEAK

- ✓ Alkateak eta udal gobernu-taldeko zinegotziak.
- ✓ Estatuko gaikuntza duten funtzionarioak.
- ✓ Udaletako zuzendariak.
- ✓ Programaren xede diren zeharkako alorretako ardura duten udal-teknikariak.

INSKRIPZIOAK ETA MATRIKULA

- ✓ IVAPen Solaskidegune aplikazio informatikoaren bidez egingo dira inskripzioak. Horretarako, harremanetan jarri beharko da dagokion toki-entitateko prestakuntza-koordinatzailearekin.
- ✓ Informazio gehiago nahi izanez gero, bidali e-mail bat helbide honetara: prestakuntza@ivap.eus
- ✓ Izena emateko epea urriaren 4an amaituko da.
- ✓ Prezioa: 484€, udal bakoitzeko. Behin onarpena bidalita, IVAPek faktura bidaliko du dagokion entitatara.

ONARPENA

Gutxi gorabehera Programa hasi baino astebete lehenago, IVAPek onarpenak bidaliko ditu.

ZIURTAGIRIA

Diploma emateko, bete egin beharko da jarraian adierazitako baldintza hauetako bakoitza:

- Gutxienez, Programaren ordu guztien % 80ra joatea.
- Berrikuntza edo Hobekuntzako Proiektu bat egitea, Udal bakoitzeko ordezkariak batera egindakoa. Tutoreak egongo dira proiektuaren lanketa-prozesurako.

Ziurtagiriaren ondorioetarako, hau izango da programaren iraupena: 70 ordu (aurrez aurreko 45 ordu eta 25 lan-ordu).